

«Euskararen Herri Hizkeren Atlasa»ren lehen bi liburukiak aurkeztu ditu Euskaltzaindiak

1984an abiatu zuten lanak lehen emaitzak eman ditu modu horretan. «Euskararen Herri Hizkeren Atlasa» egitasmoa euskararen aldaerak mapetan jasotzeko helburuarekin garatu du Euskaltzaindiak.



Euskaltzaindian bildutako lagunak atzo, Atlasa eskuetan. Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

GARA | BILBO

Hizkuntzaren ahozko aldaera desberdinak mapetan agerian emateko egiten dira hizkuntza atlasak. Eta euskararen aldaerak mapetan jasotzeko helburuarekin egindako lan mardula aurkeztu zuen atzo Euskaltzaindiak Bilbon, "Euskararen Herri Hizkeren Atlasa" (EHHA).

Elkarteak 1983an onartu zuen orain lehen bi liburukien emaitza eman duen egitasmoa, Markina-Xemeinen egindako Dialektologia Barne Jardunaldietan. Eta 1984an jarri zen lana abian, Jean Haritschelhar, Beñat Oihartzabal, Andolin Eguzkitza eta

Adolfo Arejita buru zirela -azken hau dugu egun zuzendaria-.

Bestalde, Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain dira egitasmoaren arduradun teknikoak. Horiez gain, inkestak egiten eta transkribatzen, mapak osatzeko eta informatizatzeko lanetan hauek ibili dira urte hauetan guztietan: Isaak Atutxa, Iñaki Camino, Ana María Etxaide, Jose Maria Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Aitor Iglesias, Gorka Intxaurbe, Jon Irigoras, Amaia Jauregizar, Juan Antonio Letamendia, Juantxu Rekalde eta Koro Seguroa.

EHHA egitasmoa abiatzerokan, galdeketa lekuen sarea, gal-

de-sorta eta lan metodologia finkatu ziren. Galde-sorta horrek hizkuntzaren datu guztiak aztertzen ditu: lexikoa, fonetika, morfologia eta sintaxia, eta datuak biltzeko Euskal Herri osoko 145 herri hautatu ziren: Araban herri bat, Bizkaian 36 eta Gipuzkoan ere 36. Nafarroan 27, Lapurdin 15, Baxenabarren 18 eta Zuberoan 12. Gero, 1987an hasi zen Euskaltzaindia inkestak egiten eta 1992an amaitu.

Inkesta egiteko adineko pertsonak aukeratu ziren, sortzez eta familiariaz tokian tokikoak, eta herri-kanpoan gutxi ibiliak. Eta inkestak 80ko hamarkadan egin zirenez, asko hilak dira.

Aitziber Etxeberriaren «31 baioneta» eleberria gaztelaniaz eman du Koro Navarrok

Ariane KAMIO | DONOSTIA

Orain hiru urte Aitziber Etxeberriak (Zarautz, 1973) euskaraz kaleratu zuen liburua gaztelaniara itzuli du Koro Navarrok Erein argitaletxearekin. Literatura historikoan oinarrituta, «liburu duina, erraz irakurtzekoa» dela aitortu zuen atzo itzultzaileak Donostian egindako aurkezpenean. «Liburu interesgarria da Donostiako historiari zerbait gehiago jakin nahi dutenentzat», nabarmendu zuen.


"31 bayonetas, la quema de San Sebastián" XIX. mende hasieran kokatzen da, Indepen-

dentzia Gerran Gipuzkoako hiriburuak jasan zituen setioetan, hain zuzen. «Gertakari haien ondorengo egunean, Donostiako gizon prestuenak Zubietan elkartu ziren suntsituta zegoen hiriarekin zer egin eztabaidatzeko. Donostiatik alde egin, ala hura berreraikitzen saiatu. Bigarrenaren aldekoa izan zen gizon haiek egindako hautua, handitasunaren seinale garbia», esan zuen.

Bere iritziz, itzultzaile bezala «arraro sentitu naiz euskaratik gaztelaniara lana itzultzen, normalean alderantzizko bidea izaten baitute liburuek. Hasieratik kostatzen egin zitzaizkidan, nahiz eta

ondoren neurria hartu eta oso gustura aritu naizen lanean». Hala, liburuaren euskara maila goratu zuen, eta horrek lana erraztu diola gaineratu.

Etxeberriak bi zatitan banatzen du lana; batetik, gerrak Donostian sortutako egoera eta, bestetik, Uliako baserri batean bizi diren ama-alaben eguneroko bizimodua. «Orain berrehun urte Donostiako jendeak zituen ohiturak biltzen saiatu naiz kontakizun historikoa egiteaz gain», adierazi zuen. Beatriz eta Grazianaren bizitzak azaltzen ditu beraz, setioaren aurreko zein ondoko Donostiaren egoera deskribatzen duen bitartean.



Aitziber Etxeberria, atzo Donostian. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

NAFARROA

PSN critica la «escasa celeridad» en la aplicación de enmiendas presupuestarias

El portavoz de Cultura del PSN, Román Felones, criticó ayer la, a su juicio, «escasa celeridad del Departamento de Cultura tanto en las convocatorias de programas que impliquen a instituciones, organismos o personas, como en la aplicación de las enmiendas acordadas con el PSN en los Presupuestos Generales de Navarra para 2010». Por ello, el parlamentario socialista explicó en un comunicado que ha registrado una batería de preguntas orales dirigidas al consejero de Cultura, Juan Ramón Corpas, para ser respondidas en comisión parlamentaria. Felones preguntará sobre las convocatorias previstas para el año 2010 que hayan sido publicadas en fecha posterior al 31 de marzo y sobre las razones que justifican dicho retraso.

PAILAZO JAIALDIA

Els Joglars taldeko Pep Vilak «ergelkeria ikastaroa» gidatuko du Arrigorriagan

Els Joglars taldeko kide Pep Vilak "Ergelkeria ikastaroa" eskainiko du datorren astean Arrigorriagan, Nazioarteko XV. Pailazoen Jaialdiaren baitan. Egitasmoa maiatzaren 3tik 6ra bitartean izango da, antolakuntzak jakinarazi duenez. Pep Vilaren aburuz, pailazoekin alderatuz den-dena «ondoegi» egin ohi dugunez, «ikasitako guztia ahaztera» bideratuko ditu Arrigorriagan profesionalentzako eskaintako ikastaro honetan. Pep Vila 1999. urtean hasi zen Els Joglars taldean "Daaali" ikuskizunean parte hartu zuenean. Prestakuntza arloan ere eskarmentu handikoa da, tartean, Gironako El Galliner Antzerki Eskolan irakasle izanik. Arrigorriagako Pailazoen Jaialdia 1995ean sortu zen, kaleko arteak arte eszenikoen baitan azpigerotzat hartzen ziren garaian.

PUBLICACIÓN

Seix Barral publicará en otoño poemas y cartas inéditas de Marilyn Monroe

Seix Barral publicará el próximo otoño la versión española de una colección de poemas, notas íntimas y cartas manuscritas de Marilyn Monroe, que han permanecido inéditas desde su muerte, custodiadas por Anne Strasberg, quien finalmente decidió hacerlos públicos a través de una editorial francesa, Seuil. Se trata de un volumen facsimilado de 250 páginas, ordenado cronológicamente, que contiene todo tipo de documentos personales de la actriz (incluidas comunicaciones con su psicoanalista), el primero de los cuales está fechado a finales de 1943 y el último en 1962, el año de su muerte. Según explicó a EFE la directora de Seix Barral, Elena Ramírez, estos documentos tienen un extraordinario valor emotivo, pero también literario, ya que, además de poemas inéditos de la actriz, hay cartas que Monroe intercambió con los mejores escritores de su época: Somerset Maugham, Carson McCullers, Truman Capote y Norman Mailer, entre ellos.